

Nafarkaria

Egunkaria

Ostirala, 1996ko abuztuaren 23a



Baztango hizkeraren bilduma

■ Mariano Izeta Elizondoko euskaltzaleak bizitzan zehar Baztango bailaran bildu dituen hitzak eta esaerak kaleratuko ditu aurki Nafarroako Gobernuko Hizkuntz Politikarako Zuzendaritza Orokorrek *Baztango hiztegia eta erranairuak* izenburua daraman lanean. Urteetan base-

ria eta nekazaritza izan dute bizimodu baztandarrek, baina ohiturak aldatzen ari dira eta, horregatik, desgertzen ari diren hitz horiek jasotzeko Marianok egindako lana oso garrantzi handikoa da, galtzen ari den altxorra jaso baitu. ■

Adiskide eroarekin

MIKEL TABERNA



Egun osoko sargoria arratsaldeko ekaitzarekin desegin zen. Etxe barrenean, ordea, giroa pisu. Leihoa zabaldu zuen. Ondoko etxeko neskatxa estudianteez telebista piztua zuten. Lankratx ohatze gainean etzanda, biluzik eta lo. Zurrunga isil bat eskapatzen zitzaion ezpain tartetik. Kapik pentsatu zuen alfer hark ez zuela erremediorik eta hartan ere bakarrik ari beharko zuela.

Mahai gaineko paperei multzoka paratzeko agindua eman zien, paperontzira joan nahi ez bazuten. Orri zuriei dei egin, aulkian jarri eta idazteko erremintei begira gelditu zen, dudatan bezala. Luma hautatu zuen, nola ez. Lapitza, boligrafoa eta errotuladorea ez ziren konforme gelditu. Hasteko postura hartu zuenean bere idazkera etorri zitzaion kaskora. Irakurri berriak zituen txorakeria batzuk horren gainean. Grafologia. Kasu eman beharko zuen egiten zituen lerro okerretako marka guziekin.

Hondarrekoa

Bere eskua kapaz zen berak hain ongi ezagutzen zuen bere barren gordea salatzeke. Paper inprimatuak denetak berdintzen dituela ohartzearrekin lasaitu zen.

Kroniketarako gaien kutxa ireki zuen orduan. Banan-banan hartu eta aztertzen joan zen. Irakurtzen ari zen liburu bikaina? Ez, lehenago sobera aipatuak zituen liburu eta pelikulak. Bertzeren bizkar aritzea iruditzen zitzaion. Adixkidetasuna edo maitasuna? Bizita eta heriotza? Ez, hori errepika litzateke. Hitz potoloegiak ziren eta, gainera, falta zuen horietan aritzeko behar duen puntua. Pasa berriak zituen bakazioak? Ez, pertsonalegia zen. Eta berak ezaunentzat kenduta, gainerakoentzat batere baliorik ote zuen? Hemengo eta hango gerrak? Saiheska, ez zitzaiola entendiitzen erranen zioten, eta zuzenki, berriz, gaizkia eta ongia partitzen zituen sermoilariaren itxura hartzen zion bere buruari. Ustelkeria eta zitalkeria

klase guztiak? Ez, ez, ez...

Agortuxea zegoela pentsatu zuen. Orduan oroitu zen bere izkribuen erantzun gisa hartu zituen gutunez: a) gustatu zait; b) ez zegok gaizki; c) ez zekiat zer erran nahi duken. Baita bertela hartu zituenez ere: a) hitzik gabeko irribegirada zernahi zitekeena; b) besaburuak eta bekainak goititzea, hurrengoan beharko zioena; c) isiltasun erabateko kupidarik gabea. Lumari kapelua kendu eta lanpara xumeak bezalaxe berak ere bizkarra makurtu zuen paper gainera. Bortz hitz idatzi zituen: «Hau da gure azken kronika». Eta horren azpian beste lerro luzexeago hau: «Mila esker honaino ailegatzeagatik eta hurrengora arte». Eta azkenean sinadura: «Kapi eta Lankratx».

Zutitu eta logelara joan zen. Lankratxek, adixkide eroak, alfer maitagarri horrek, lo segitzen zuen, ohatze gainean biluzik etzanda. Zurrunga isil bat eskapatzen zitzaion ezpain tartetik. X

* **GURE AUKERAK**

KONTZERTUAK

Zangoza: Dulce Pontesen musika entzungai izanen da gaur, hilak 23, Nafarroako Jaialdien eskutik, Carmen klaustroan. Bihar, hilak 24, berriz, toki eta ordu berean Guen Dairen musika entzun ahal izanen da.

Altsasu: Flaco Jimenez *te-mex* musikaren erregea Zubeztia plazan ariko da bihar, hilak 24, gaueko 22.30etan. Sarrerak txarteldegietan 1.500 pezetan izanen dira salgai. Sarrera aurretik erosiz gero 1.200 pezeta ordaintzea aski izanen da.

Marcilla: Dinosaurios taldeak rock-and-rolleko kantu historikoez egindako bertsoiak joko dituzte bihar, hilak 24, herriko elkartearen eta 01.00etan.

ANTZERKIA

Ororbia: Trokolo taldeak *Zalapartaka* ikuskaria taularatu du gaur, hilak 23, ilunabarrean herriko plazan.

Donamaria: Zirko Ttipia taldeak *Hau txandria* muntaia antzeturiko du bihar, hilak 24, herriko plazan.

Lezaun: Popi eta Zartrakoren *Pailazokertak* obra ikusgai izanen da etzi, hilak 25, herriko plazan.

Zugarramurdi: Ikili Mikili Klik taldeak egunero Sorginak izeneko ikuskaria antzeten du herriko kobazuloetan. Lanegunetan emanaldi bakarra izaten da 18.00etan. Larunbat eta igandeetan horretaz gain beste emanaldi bat izaten da 13.00etan.

ZINEMA

Irurtzun: *Maite* pelikula euskaraz ikusteko aukera izanen da hilaren 28an, Foruen plazan, 22.00etan.

Etxaleku: Bihar, hilak 24, *Maite* pelikula ikusteko parada izanen da herriko plazan, 22.00etan.

ERAKUSKETAK

Bera: Bidasoako paisaje margolarien lanak irailaren 1a arte ikusgai izanen dira herriko Kultur Etxean.

Zangoza: *Harriak baino gehiago* instalakuntza hilaren 27ra arte ikusgai izanen da herriko Kale Nagusian. Horren egileak Silvia Jauregi, Mikel Saiz eta Beatriz Txurruka dira.

IKASTAROAK

Iruñea: Web orriak nola egiten diren ikasteko ikastaroa antolatu du Nafarroako Internet taldeak. Ikastaroak astelehenero goizez egiten dira taldearen egoitzan. Bost astelehenero zehar ordubeteko ikastaroa egiteko parte-hartzaileek 12.000 pezeta ordaindu beharko dituzte.

Iruñea: AEK-k glotodidaktika ikastaroa antolatu du. Ikastaroa irailaren 2an hasi eta 20an burutuko da. Izena emateko deitu 22 02 13 telefonora.

Nafarkronika

Alberto Barandiaran

Egoera berria

Miguel Indurain Espainiako Itzulian izango da azkenean, taldeak behartuta egon ere. Atarrabiakoaren duda nagusia zen bi aste barru hasiko den itzuli honetan parte hartuko zuen edo, bestela, Munduko txapelketa ondo prestatzeko beste lasterketa batzuetara joango ote zen, eta erabakiaren zain zegoen jendea, baina hautua ohi ez bezalako moduan etorri da: taldeak bere nahia ezarri dio txirindulariari.

Ez da txantxetako gauza. Banesto Banesto denetik, txapeldunarentzat propio eginiko taldea izan da Etxabarrirena. Induraini interesatzen zitzaizkion probak korritzen zituen taldeak, berari egoki zitzaizkion prestakuntzak egiten, eta taldekideak ere zuzendariarekin batera hautatzen ziren. Indurain zen, normala denez, taldearen ardatza, eta berak bazuen pisu handia programazioa egiterakoan. Hori dela-eta,

inor ez zen harritzen abuztua iritsi eta taldeko beste inork probarik irabazia ez bazuen: hor zegoen beti Tourra eta beste lasterketa garrantzitsuren bat —zela Giroa, Paris-Niza edo Dauphine Libere edo—.

Aurten, ordea, iritsi da abuztua eta Jimenezek Urkiolako gainean irabazitakoak ez du atzendu porrotaren sentazioa, Atlantako domina, Dauphine Libere eta Alentejoko Itzulia gora-behera. Eskasa oso munduko aurrekontu handienetako duen taldearentzat, eskasa denboraldi luze batentzat. Eta Espainiako Itzulia, publizitarioki errentagarriena ez izan arren, taldearen etxeko itzulia da. Beste urteetan ere izan dira presioak, baina, Tourra eskuan, zaila zen txapelduna behartzea. Orain gauzak aldatzen ari dira. Taldeak ezarri du bere nahia. Zenbat jasango du nekaturta eta txinpartik gabe dagoen Miguelek egoera berria?



asteko pertsonaiak



Juan Cruz Alli
Nafarroako behin-behineko presidentea


Francisco Javier Ansoategi Madrilgo Gobernuako ordezkariak eskutitza jaso zuen joan den asteartean. Ez zen bankuak bidalitakoa, ez eta oportetan zegoen lagun baten postala ere. Alli behin-behineko presidentea igorritako eskutitza zen, eta eskuminak baino zerbait gehiago zekarren bere baitan. Alliren irudikoz, legez kanpokoa da Itoizko urtegia... ez, barkatu, Itoizko kanpaldia, eta, kanpaldia egin ez dadin, Ansoategiri «ordena publikoari dagokionez beharrezkoak diren bitarteko guztiak» erabiltzeko galdegiten zion idazkian. Beharrezkoak diren bitarteko guztiak, Guardia Zibila eta Foruzaingoa hain zuzen ere, asteazkenean heldu ziren Itoizera, gaur kanpaldian parte hartzeko asmotan ailegatzekoak direnei harrera egokia prestatzeko asmoz.



Josemi
Osasunako jokalaria

Jose Miguel Lopez Quevedo *Josemi* madrildarra asteazkenaz geroztik Osasunako jokalaria da. Aurrelariak 22 urte ditu eta Rayo Vallecano Madrilgo taldetik dator Iruñera, 1996-97 denboraldirako utzia. Josemik azaldu duenez, Osasuna aukeratu du batez ere orain arte jokatzeko aukerarik. Era berean, Osasunara etortzeko garaian aintzat hartu du gorritxoaren taldearen seriotasuna eta izen ona. Gol asko sartzen dituen aurrelaria ez bada ere —aurreko denboraldian ez zuen bat bera ere sartu—, azkarra eta abila da baloiarekin, eta horregatik aukeratu omen du entrenatzaileak.

ahaztu gabe!



Erdi Aroko merkatua

Erriberri: Nafarroako hainbat herritatik iragan eta gero bihar Erriberri hurbilduko da Erdi Aroko merkatua. Besteak beste, malabaristak, magoak, eta mahatsa zapaltzeko prozesuaren erakusketa ikusteko aukera izanen dute herritarrek eta bisitariak. Merkatuak larunbatean, goizeko hamaiketan, irekiko dituzte ateak, eta igande gauean itxiko. Nafarroako 50 artisau baino gehiagoren produktuak salgai izanen dira (eztia, gazta, oihalak, larruzko oinetakoak eta pastelak, adibidez) eta, bide batez, horiek nola eta zein lehengairekin egiten dituzten erakutsiko dute. Gainera, Erdi Aroko merkatua Erriberri izanen dela aprobeztatuz, Udalak herriko ekonomia ardatzetako bat bultzatzen ere saiaturiko da asteburuan, ardoa eta horren produktioaren baitan dagoen kultura bultzatzen alegia. Horretarako, Erriberri ezagutzeko bisita izanen da bihar eguerdiko hamabietan eta, ondoren, ardoa egiten den upelategi bat ikustera joanen dira bisitariak ardoaren prozesu guztia nola egiten den ikusteko.

adi!

Euskalerria Irratia FM 91,4

Egunero astelehenero ostiralera, *Zokobetailu* goizeko 10.00etatik 11.00etara.

Xorroxin Irratia FM 107,5

Egunero 20.00etatik 22.00etara *Karakola segi hola* gazteendako saioa.

Aralar Irratia FM 106,2

Asteazken zehar 13.30etatik 14.00etara, bertako bizilagun eta pertsonaia ospetsuei elkarrizketak.

Karrape Irratia FM 107,8

Asteazken zehar, 12.20etatik 12.35etara *Gauza guztien gaineratik*, edertasuna eta osasuna, sukaldaritza, ohiturak.

Marcilla

Aitzurra Jaurtiketa Txapelketa asteartean

Herriko gazteluaren atarian egingen dira hamargarren edizioko jaurtiketak

Aitzurra Jaurtiketa Txapelketa jokatu dute Marcillan heldu den asteartean. Herriko El Estoque elkarteak urtero antolatzen duen proba gazteluko atarian izanen da, eta partehartzaileen artean David Mikeleiz jaurtiketa errekorrena egonen da. Emakumeen saioa ere izanen da.

Erredakzioa / Iruñea

AZKEN hamar urteotako ohiturari jarraituz, astearte honetan Aitzurra Jaurtiketa Txapelketa izanen da. Txapelketako araudiaren arabera, jaurtigaiak, aitzurrak alegia, hiru kiloko pisua eta 70 zentimetroko luzera eduki behar du, gutxi gora-behera. Bestalde, jaurtiketa behetik gora egin behar da. Baldintza horiek aintzat hartuz marka ona egitera joanen dira munduko aitzurra jaurtizailerik hoberenak. Horien artean izanen da, huts egin gabe, David Mikeleiz Figaroleko gaztea, bera baita probako marka hobereena duena, 34,95 metroekin. Proba Marcillako gazteluaren atarian jokatu da, eta izena emateko epea txapelketa hasi arte zabalik izanen da, gazteen, helduen eta adinduen kategorian.

Gizonezkoek ez ezik emaku-



Aitzurra jaurtiketan abildadea erakutsi beharko dute partehartzaileek.

JOXE LACALLE

mezkoek ere izanen dute beren proba, azken hiru urteotako ohiturari jarraituz. Emakumezkoen artean, Rita Lora da faboritua, berak lortu baitzuen joan den edizioan marka onena 19,15 metroekin. Aipatu bi izen hauetaz gain, hurbilduko da besterik Marcillara, aurreko edizioetan lortutako arrakastaren surrin. Aintzat hartu behar da iragan urteetan, besteak beste, Alemania, Portugal, Frantzia, Australia eta Kroaziako jaurtizailerak izan dituela probak.

El Estoque elkarteak Udalaren laguntzarekin urtero herriko jaien egitarauaren barruan antolatzen duen lehiaketa berezi honek espero du ikusle ugari biltzea, eta Nafarroako beste herri batzuetan ere baditu eta izan ditu imitatzaileak: Castejon, Artaxona eta Murillo el Fruto hain zuzen ere.

Gainera, partehartzaileak ez dira esku hutsik joanen, antolatzaileak sari onak emateko prest baitaude. Probaren aurrekontua 340.000 pezetakoa da,

eta saritan 125.000 pezeta banatu dira. Gizonezkoen artean, irabazleak 40.000 pezeta jasoko ditu; bigarrenak, 15.000 pezeta, eta hirugarrenak, 10.000 pezeta. Emakumezkoen dagokionez, sailkatutako hiru lehenengoak 20.000, 10.000 eta 5.000 pezetaren sariak praktikaratu dituzte.

Beraz, lehen aipatu luzerak gaintzeko gai bazara badakizu nora hurbildu astearte honetan, Marcillara sentsazio berriak izatera. X

Bera

Bertako produktuen feria

■ Trikitilariak eta herri kirolak ere izango dira

Erredakzioa / Iruñea

BERTIZKO Partzuergo Turistikoak eta Cederna-Garalur elkarteak antolatuta, bertako produktuen feria egingo da bihar Beran. Baztan, Malerreka, Bortzirriak eta Urdazubiko ekotzelek parte hartuko dute, eta egunean zehar trikitilariak eta herri kirolak ere izango dira herrian.

Gero eta maizago betetzen dira herriak bertako produktuak aldarrikatzeko antolatzen diren feria hauetan. Jendea kontzientziazten ari da bertakoa ez dela kanpokoa baino txarragoa, are gehiago, hemengoari eutsita herrien bizitzari eutsi egiten zaiola, eta arrakasta ere ez da makala izan. Igandean Arakil-Uhartan egingo den Artzain Egunarekin, bada, gaztagileek berek azpimarratzen dute feria hauek

izan duten garrantzia, eta, horregatik, ez da harritzekoa bihar Beran egingo den honetan ere gaztagileak nagusi izatea.

Feria goizeko hamarretan hasiko da, eta ordubiak arte ikusi eta erosi ahal izango da alderdian egindakoa. Ahatekiak, esate baterako, Elizondoko Esartek, Berako Errotazarrek eta Almandozko Beolak ekarriko dituzte, eta gozokiak Elizondoko Malkorra gozotegiak. Gaztak Arantzako Otsarrak, Elbeteko Autxitxiak, Elizondoko Etxetxiak, Arizkongo Baztanek, Amaiurko Mendialdek, Etxalarako Basatek, Urdazubiko Etxelekuak eta Donamariak eramango dituzte, eta fruituen atalean Lekarozko kiwiak eta Arizkongo mugurdiak dastatu ahal izango dira. Edaria ere dastatzeko aukera izango da, sagardoa eta patarra hain zuzen ere. Sagardoa Lekarozko Larraldeak eramango du, eta likoreak Arizkongo Licores Baztan enpresak.

Eguerdian trikitilariak izango dira, eta arratsaldean, 20.30-etan, herri kirolak plazan. X

Goizueta

Trikitixa txapelketa etzi

■ Nabarte goizuetarrak nagusi estreinakoan

Alberto Barandian / Iruñea

DANI eta Ainara Nabarte goizuetarrak izan ziren onenak joan den asteko ostegunean Goizuetan bertan egin zen Nafarroako Trikitilarien III. Txapelketaren estreinako kanporaketan. Anai-arrebak onenak izan bai, baina lehia oso parekatua izan zen, bigarren bikotea puntu erdi eskasera gelditu baitzen. Irune Agirre arbizuarrak eta Onditz Artieda etxarriarrak osatutakoa izan zen hau. Ondoren Amaia Irastorza eta Harkaitz Mindegia beratarrek sailkatu ziren.

Goizuetako saioa ona izan zen, oro har, eta ikusleek antzeman ahal izan zuten trikitilarien mailak urterterekin egiten duela bere bidexka, eta eskolan markatutako ildoak benetan egokia dela. Goizuetako plazara lagun anitz bildu ziren.

Aitor Furundarena eta Juan txo Urbietak epaimahaikoen puntuazioak honako hauek izan ziren: lehenak Dani eta Ainara Nabarte goizuetarrak, 203 punturekin; bigarrenak Irune

Agirre eta Onditz Artieda (Arbizu eta Etxarri-Aranatz), 202,5 punturekin; hirugarrenak Amaia eta Joseba Irastorza beratarrek, 201,75 punturekin; eta laugarrenak bi bikote gelditu ziren puntuazio bera eskuratuta -199,25-: Irune eta Patxi Zabala goizuetarrak, eta Nekane Etxandi eta Estitxu Elgorriaga lesakarrak. Seigarren tokian Oihana Almandoz eta Jose Mari Elgorriaga lesakarrak sailkatu ziren, 198 punturekin eta zazpigarrenak Ainara Mindegia eta Harkaitz Mindegia iturendarrak izan ziren -197,5 p-. Zortzigarren tokian Onintza eta Ainhoa Bengoetxea leitzarrek gelditu ziren.

Bigarren kanporaketa igande honetan jokatu da Lakuntzan, herriko jaien egitarauaren barruan. Hor parte hartuko dute Mikel eta Iñaki Mundiñano anaiek, aurreko bi edizioetako txapeldunak. Bi kanporaketetan puntuazio altuenak ateratzen dituzten zortzi bikoteak izango dira Altsasuko finalean, irailaren 15ean. X

Itoitz

Gaur hasiko da Itoitzko urtegiaren aurkako kanpaldia

■ Irailaren 1a bitartean hainbat ekitaldi izanen dira Irati inguruan

Erredakzioa / Iruñea

GAUR abiatuko da Itoitzko urtegiaren aurka azken urteotan huts egin gabe egiten den kanpaldiaren beste edizio bat. Urtero legez, Itoitzko Koordinakundeak hainbat talde ekologistaren sustenguekin hainbat ekitaldi antolatu ditu: Iratiko bailarara egindako bisitak, bizikleta martxak, kontzertuak eta hitzaldiak urtegiaren inguruan, besteak beste. Kanpaldia gaur hasi eta heldu den irailaren lehen bukatuko da.

Kanpaldiaren aitzindari gisa, urtegiaren aurkako ekitaldiak astelehenean hasi ziren, Irati bizirik lelopean Eguzki talde ekologistak antolatutako martxarekin. Gaur amaituko den ibilaldian Itoitzko urtegia erabat egingen balitz urreztatuko lituzkeen parajeak -Iratiko bailara eta hainbat herri, Itoitz barne- ikusteko parada izan dute partehartzaileak.

Kanpaldiari dagokionez, Dortoka Nagia taldeak antolatuta gaur aterako da Itoitzeko bizikleta martxa Iruñeko Gaztelu plazatik arratsaldeko lauretan. Zakuak, motxilak eta dendak txirrindularien gibelean joanen den kamioiak eramanez dituzte. X

Orobia

Igandean hasiko dira jaiak

■ Asteartera bitartean hainbat ekitaldi antolatu dituzte

Erredakzioa / Iruñea

ORORBIA jaiak hasiko dituzte asteburuan. Igandean abiatuko dira goizeko bederatzietako diñarekin eta asteartera bitartean luzatuko. Igandea egun nagusia izanik, meza nagusiaren ondoren Los Pamplonicas taldearekin musika emanaldia izanen da, eta arratsaldean, seietan, herri kirolak. Gauean dantzaldia izanen da Cielon taldearekin.

Astelehenean eta asteartean festak jarraituko du. Bi egunetan bigantxak aterako dira herriko plazara arratsaldeko ordu batetik ordu bietara. Ondoren, paella izanen da astelehenean, eta kalderetea asteartean. Haurrek ere izanen dute ongi pasatzeko parada. Eurentzat txokolata da; mozorro dantzaldia Hexagono taldearekin eta zezen suzkoa izango baitira astelehenean. Jaiak asteartean bukatuko dira. X

Baztango hiztegia
eta esaerak

Mariano Izeta Elizondon duen erlojudendan harrapatu genuen lanean.

XABI VENTURA

Mariano Izeta: «Baztango euskaran bizirik dauden solasak eta hitzak agertu ditut»

Elizondon goiza ederra zegoen, eguzkiak tamainan berotzen zuen. Mariano Izeta bere erlojudendan topatu genuen lan eta lan. 81 urte baditu ere, oraindik burua argi duela eta sasoi ezin hobean dagoela ikusteko parada izan genuen. Solasaldi luze eta lasaian azken lanaren nondik-norakoak azaldu zituen.

■ **Aurki Nafarroako Gobernuko Hizkuntz Politikako Zuzendaritza Nagusiaren laguntzarekin Baztango hiztegia eta erranairuak liburua argitaratu duzu. Nola hasi zinen lanean horretan?**

Nik beti izan dut euskaltzale-tasuna, txiki-txikitatik. Gerra aitzinean hasi nintzen eskutitzak eta zerbait eskribitzen, baina gero Gerra Zibila etortzean urteetan ibili ginen noraezean; ez zen askatasunik euskarazko gauzetan. Gero, hasi zirenean pixka bat baimenak ematen, banituen 40 urte eta gehiago hasi nintzelarik idazten; 1956-57an hasi nintzen *Zeruko Argia*, *Príncipe de Viana* eta *Herria* aldizkarietan idazten. 1962an nire lehendabiziko nobela argitaratu nuen: *Dirua galgarri* zuen izenburua. Hamar urteren buruan, 1982an, *Nigarrez sortu nintzan* beste nobela txiki bat ere egin nuen, eta gero bertze hiztegi tti-

Nafarroako Hizkuntz Politikako Zuzendaritza Nagusiaren laguntzarekin **Baztango hiztegia eta erranairuak** liburua kaleratu du aurki Mariano Izetak. Euskaltzale amorratua, urte anitz eman ditu Baztango berriak euskaraz zabaltzen *Herria*, *Príncipe de Viana* aldizkarietan eta *EGUNKARIA* eta *Diario de Noticias* egunkarietan, besteak beste. Literatura eta hiztegi gintza ere landu izan ditu. Azken lan honetan, baztandarrei entzundako Baztango esaera zahar eta hitz ugari jaso ditu.

pi bat ere egin nuen 1985ean Baztango hitzekin; bazituen mila hitz baino gehiago, Euskaltzaindiak argitaratu zuen. Hiztegi hori behar nuela handitu eta horrela hitz gehiago biltzen hasi nintzen. Ia hamar urte aritu naiz lan honetan. Nahi nuen argitaratu eta mintzatu nintzen baterekin eta bestearekin. Nafarroako Gobernura joan nintzen eta baietz erran zidaten, orduan Hizkuntz Politikakoen eskuetan utzi nuen nire lana. Hor badut lanean adiskide baztandarra, Paskual Rekalde, eta berak apaindu du.

■ **Beraz, urte askotako lana izan da zuk bildutakoa. Laguntzailerik ere izanen zenuen, ezta?**

Bai, izan ditut. Laguntzailerik bat banuen, orain zendua da, Pello Mari Azkarate Anizkoa. Elizondora etortzen zen hamabostean behin gure erlojudendara eta ekartzen zizkidan bere herrian erabiltzen ziren hitzak, han esaten ziren hitz jatorrak, anitz lagundu

zidan. Gero, bertze batzuk ere bai: Lekarozko bat, Arizkongoak eta Erratzukoak ere etortzen ziren, baina beste gainerakoa nik egin dut. Dendara etortzen zirenean batekin eta bestearekin solasean, pixkaka-pixkaka urteetan bildu ditut hainbertze hitz. Resurreccion Maria Azkue-ren hiztegitik ere badira hitzak eta Gorosurreta Amairuko apezak egindako hiztegi ttipi batetik ere hitz bat edo bertze hartuak ditut, baina nik adierazten dut gero hitz hori non hartua duten. Orain, Hizkuntz Politikaren egin dute zerbait apaindu. Badira hiru urte horien esku dagoela lana.

■ **Baztango zenbat erranairu eta hitz bildu dituzu zure lanean?**

Guztira 2.900 hitz bildu ditut eta 365 erranairu. Denak dira Baztangoak eta, gainera, erranairuak Baztanen erraten diren bezala jaso ditut. Liburuan agertzen da hitza. Adibidez, artominten; gero jartzen dut ondok

bertze euskalki batean (aspaldi gabe) eta gaztelaniaz (hace muy poco tiempo) eta adibidezko esaldia.

■ **Baztango hitzak eta erranairuak biltzen lan asko egin duzu; bidean asko gelditu zaizkizu?**

Baztanen erabiltzen diren hitz asko hartu ditut. Nekazariak eta baserritarrek erabiltzen dituzten hitzak dira batik bat. Hala ere, oraindik zenbat eta zenbat utzi ote dudana hartu gabe galdetzen diot neure buruari. Hutsak ere izango ditu lanak, asko baitago biltzeko.

■ **Lana egitean zer da gehien biltzea kostatu zaizuna?**

Ez dut uste traba handirik izan dudarik. Ordu asko eman ditut hitzak eta erranairuak pilatzen, baina erraza izan da. Lan gehien argitaratu nahiak eman dit. Ibiliko nintzen batekin eta bestearekin argitaratzeko eta, azkenean, Nafarroako Hizkuntz Politikakoengana jo nuen, eginen zutela erran zidaten, eta orain ho-

retan dabilta. Ni ez naiz etxez etxe ibili, baizik jendearekin denda izandako solasetan hartu ditut.

■ **Baserritarren hiztegia galtzen ari dela diozu eta ez dituzula guztiak pilatu. Altxor hori bukatzen ari da?**

Hitz asko utzi ditut apuntatu gabe, ez da erraza denak hartzea. Egia da Elizondura erdalduna dela, erdaldundua dago, baina ez orain, duela hirurogeita hamar urte eta gehiago, gure amaren denboran ere erdalduna zen, eta inguruko herri guztiak euskaldunak, baserritarrak direlako. Denda asko ikasten da. Gure dendara etortzen zirenak beti euskaraz mintzatzen ziren, ni ez naiz baserritarrekin ibili eta bizi; hauekin bizi izan banintz, seguru aski hitz gehiago aurkituko nituen. Hala ere, hitz anitz hartu ditut.

■ **Erranairuekin bilketa prozesu bera jarraitu duzu?**

Erranairuak nire osaba zenari hartu nizkion asko, Tomas Elizalderi. Nire amaren anaia zen, duela hogeita hamar urte baino gehiago hil zen. Modu berean, txiki-txikitatik bildu ditut, badituzte 81 urte eta nire bizi guztian hemen nago, Elizondon, egunero batekin eta bestearekin denda. Baztango euskaldunei adituak dira nik bil-

Baztango hiztegia
eta esaerakLiburua beranduenik urrian
kaleratuko da

NAFARROAKO Hizkuntz Politikarako Zuzendaritza Nagusiak irailaren bukaeran edo urriaren hasieran —oraindik zehaztu gabe dago— kaleratuko du Mariano Izetak urte askotako lanaren ondorioz bildu duen *Baztango hiztegia eta erranairuak* liburua. Izeta beti ibili izan da euskal hiztegitzeta munduan sartuta. 1985ean atera zuen Euskaltzaindiko Euskara agerkarian hiztegi txiki bat eta, beranduago, 1993an, *Baztango erranairuak* kaleratu zuen. Aurki eza gutzera emanen den lana aipatu bi horien segida da.

Liburu berriak bi zati nagusi ditu: lehena hiztegia eta bigarrena erranairu bilduma. Hori hala bada ere, liburuaren egilearen bizia agertzen duen orrialdeaz gain, Pello Salaburu Euskal Herriko Unibertsitateko errektoreak prestatu artikulua, batetik, eta hiztegiaren egitura nolakoa den agertzen duen lantxo (Baztango eskualde, auzo eta herrien berri ematen duen mapa barne), bertzetik, ditugu bi zati horien aitzindari.

Elizondoko erlojulariak orain hiru urte bidali zuen lana Hizkuntz Politikara, baina izandako arazoak direla eta

urrian aterako da kalera. Paskual Rekalde Hizkuntz Politikako Zuzendaritza Nagusian itzultzaile diharduen amaiurtarrak Izetaren lana ezaguturik hasieratik lanaren moldaketa ardura hartu zuen. «Nik hartu nuen ardura lana zuzentzeko, amaiurtarra naiz eta ezagutzen nuen lehenagotik ere Mariano. Lana sailkatu eta hiztegi moderno batek gaur egun duen itxura

Euskara agerkarian ere agertu zen beste Baztango hiztegi bat Juan Bautista Gorosurreta apaizak 1910-11 inguruan egindakoa. Gorosurretak bidali zion hitz sorta bat Azkue apaizari gero *Diccionario vasco-español-francés*-en ateratzeko. Hori da berez abiapuntua. Marianok lehenagotik bildutakoari gehitu dizkio berak jakin ahal izan dituen gauzak. Bere familián, inguruan,

tegi dialektala da, erran erraten den bezala sartzen delako hitza eta, bestetik, hiztegia hobetu egin da forma normalizatua sartuta. Azken batean, bideratuta egonen litzateke Baztanen dauden erdaldunek ere ikas dezaten azaldu du Rekaldek.

Argitaratzea erabaki zen batez ere aukera ona zelako bizirik dagoen euskalki baten hiztegia ateratzeko. Hiztegi batean ikusten baita euskalki horren muina zein den, eta horrelako anitz ez dira egiten Nafarroan eta euskara munduan are gutxiago. Orain arte egin den lan nagusia Azkuek egin zuen *Diccionario vasco-español-francés* hiztegiaren ikusten da, hor agertu direlako Bizkaiko, Gipuzkoako, Zuberoako... hitzak. Hizkuntz Politikako itzultzailearen esanetan. Izetarenak «etxean egindako hiztegi bat ematen du gehiago. Baina balioa badu, erabilgarria da, eskoletan erabiltzeko balioa luke. Balioa du euskal dialekto bat agertzen duen hiztegia delako. Hizkuntza galazten ari da, bizimodua eta nekazaritza aldatzen ari delako. Hau dela eta, hizkuntzaren arlo batzuk ez dira lantzen eta horiei dagokien hiztegia galtzen da. Hor jaso da hori».

Paskual Rekalde: «Hiztegi dialektala denez, lana sailkatu eta hiztegi moderno batek duen itxura eman nahi izan diot, erakargarriagoa eta baliagarriagoa izateko»

eman nahi izan diot, irakurgarriagoa eta baliagarria izateko».

Hiztegia, berez, Baztango hamabortz herri-tako hitzekin osatua da. Laurehun bat kilometro karratuko eremua da, nahiko eremu zabala, eta hitz mota desberdinak aurkituko ditugu, herritik herrira aldatzen direnak. Pila-tze eta biltze lan handiena Izetak berak egin badu ere, izan du laguntzailerik eta aitzindari. Paskualek azaldu duenez, «ez da bere sortze lana bakarrik. Izan ere, 1962an

herrietatik joan direnen artean jasotakoak».

Erranairuei dagokien, prozesua desberdina izan da. Izetak berak bildu ditu, zerranda bat egin du, ez da inolako azalpenik ematen, eta erranairuak bakarrik agertzen dira. «Hiztegi dialektala da eta horrela behar duenez, hitzak erran erraten diren bezala jaso dira». Kutsu zientifiko bat emateko, hitz bakoitzak dauka ondoan bere esanahia batuaz eta gaztelaniaz ere, Izetak jarri nahi izan duelako bere balioa. «Alde batetik, hiz-

Hirurehun
erranairu baino
gehiago bildu ditu
Izetak


■ *Horien adibideak eguneroko bizitzatik ateratako pasarteak dira*

I.A. / Elizondo

MARIANO Izeta euskaltzaleak egin duen *Baztango hiztegia eta erranairuak* liburuan berak bizitzan zehar bildutako hitz sorta galanta ezezik erranairu ugari ere jasotzen dira. Egileak sarreran dioen moduan, «Baztango erranairuen bilduma hau, baztandarren artean entzundako ele-xaharreki osatua daukat. Nire familiaren artean ere aunitz hartuak ditut, ama, osaba eta gainerakoei aditutako erranairuekin».

Bildutakoak mota askotakoak dira; erlijioa, natura, nekazaritza, adar jotzeko kontuak eta abar islatzen dituztenak, edota pertsona baten eta bere inguruan sortutako egoeren nondik-norakoak jasotzen dituztenak. Hona hemen horietako batzuk adibide gisa: *Antxu ttalla, beti bildots*. (Antxu txikia, beti bildots). *Buruik eztuenak, zangoak ibili behar*. (Buruirik ez duenak, zangoak ibili behar). *Kukuek erramu egunean kuku, San Pedro egunean mutu. Xilo berriek eztu zarra tapatzen*. (Zulo berriak ez du zaharra estaltzen). *Gartzain, zapela bete gaztain. Ik nai duk bertzen puztenakin ultiek kendu*. (Hik nahi duk bertzeren buztanarekin euliak kendu). *Española yan ta otz, frantsa jan ta bero, naiz ta deus ezten gero* (Española jan eta hotz, frantsesa jan eta bero, nahiz eta deus ez den gero). *Abenduko gau ederrarekin, ostatuko neska galantarekin ta bide bazterreko arbolareki, ez daiteke iñotz fidetu*.

Baztandarra ttuku, ttuku dio Baztango beste esaera batek, eta Marianok, bere bailarako esaerari jarraituz lana isilean eta denborarekin egin du. Dotore jantzi du Baztan osotzen duten hamabortz herrietako hitz eta esaera zaharrekin, lan bikaina eskaintzeko euskaltzale den edonori. X



Mariano Izeta oso kontent dago urte askoan egin duen lana laster argitaratuko diotelako.

XABI VENTURA

du ditudan erranairuak eta, berrere, guztiak Baztangoak.

■ **Erranairuak ahoz ahoz eta belaunaldiz belaunaldi transmititu dira.** Baztanen, beste baserriar alderdi askotan bezala, gizartea aldatzen doa, eta, era berean, ezin da gaztelaniaren indarra ukatu. Transmisio katea hautsia dela esan daiteke?

Oraindik ez, baino galtzen ari da pixkanaka. Liburuak erranairuak oraindik erabiltzen dira eta erraten dira, baina jende helduak erraten ditu, gazteak ez ditu horrelakoak erabiltzen. Gazteek ez dute zaharrak bezala hitz egiten. Beharrik nik bildu ditudan hauek guztiak. Berrogei urteren buruan galduko dira. Euskaldunek ez dute erabiliko Baztango jende zaharrak erabiltzen duen hizkera. Erranairuak dira interesgarriak, zergatik hemen duzu hitza herriak esaten duen bezala eta lotuak daude herriaren izateko erarekin, asko dira baserriar girokoak. Adibidez, *San Gil, tretziak baki trakil*. San Gil da irailaren lehendabiziko eguna eta Baztanen lehen iratzea zuten ebaki eta ez lehenagotik. Horrek erakusten du nola erranairua dagoen lotua jendearekin eta bizitzeko erarekin. Baztango euskaran bizirik dauden solasak eta hitzak agertu ditut, baztandar helduek eguneroko euren solasetan erabiltzen dituztenak, baina denborarekin galdu egiten direnak. Hitz gehienak Baztan inguruko lurraldeetan erabiltzen dira. Jakina denez, euskara beti egon da txikiak ginelarik zango-

Mariano Izeta:

«Laguntzaile bat banuen orain zendua dena, Pello Mari Azkarate Anizkoa.

Elizondora etortzen zen hamabostean behin eta bere herrian erabiltzen ziren hitzak ekartzen zizkidan»

«Liburuak erranairuak oraindik erabiltzen dira Baztanen helduen artean, interesgarriak dira zeren hemen duzu hitza herriak esaten duen bezala. Beharrik nik bildu ditudala, berrogei urteren buruan galduko baitira»

pean; denborarekin badu bere indarra, badira eskola eta ikastolak. Baserriko jendea arras euskalduna da, eta, orain, gezurra iduri badu ere, Elizondon duela 60 urte baino euskara gehiago entzuten da. Hala ere, oraindik erdaldu da. Ez delako egiazko euskaltzaletasunik, zinez sentitzen bagenu gure bihotzetan behar genuke denok euskaraz mintzatu. Baina hori ez da gertatzen, euskaraz badakigu eta, hala ere, erdaraz mintzatu behar.

Irene Arrizurieta

Elizondo

Xanti Begiristain

Sasimuga eta mendi-bideak

■ Uda honetan, zenbait egunez, ibili naiz Nafarroa eta Iparraldeko sasimuga aldetan. Sasimuga diot, zeren eta teoriarik behintzat aspalditxoan sartu baikintuzten Europako Batasunean, eta horrela izanez gero, hau da, Batasun barruan baldin bagaude pentsatu beharko litzateke mugak desagertuak daudela, baina zoritxarrez aurreko egun horietan neronek oso nabarmenki sumatu dut muga malapartatu horrek oraindik hortxe jarraitzen duela.

Baina noan urratsez urrats. Hasteko esango dut opor egun horietan ibili nintzela Irati, Larraine eta Mintxate aldean, besteak beste, eta detektatu ahal izan nuen gauza pare bat bitxia bezain kezagarria suertatu zitzaidan. Izan ere, hor ikusi ahal izan nuen honako hau:

Iparraldean mendi-bide gehienak galipotez eginak daudela nahiz estuak eta oso aldapsuak izan, eta Hegoaldean, aldiz, gehientsuenak legarrez, hartxintzarrez eta hondarrez bukatuak direla. Hau guztia alde batetik, baina gero badago beste kontu bat, alegia, kasu askotan (gehinetan) Iparraldeko mendi-bideak eta Hegoaldekoak ez dira batzen, lotzen edota uztartzen, nahiz eta batzuk eta besteak elkarrengandik oso hurbil geratu.

Puntu horiek ondorio batzuk dakartzate. Iparraldeko bideak erosoagoak eta iraunkoragoak dira; ez dakit hasieran askoz garestiagoak izanen ote diren, baina behin bukatuz gero, mantentimendua uste dut erraza eta merkeagoa izango dela. Hegoaldeko mendi-bideak

berriak, goiko geruzetan legarrez, hartxintzarrez eta hondarrez osatuak izanik, higadurak askoz ere gehiago eta azkarrago izoratzen ditu, alde batetik eurite, elurte eta izozte arruntek, eta bestetik, udaldeko ekaitz handiek. Azken honek berarekin dakar urte gutxi buruan Hegoaldeko direlako bide horiek, egoera hagitz penagarrian gelditzen direla, zailak gaintetik igarotzeko, eta beraz, konpondu beharrean. Konpontzen badira garesti aterako dira, eta hori egin ezean txit praktikagaitzak suertatzen dira.

Badakit pertsona batek baino gehiagok dagoeneko prestatua izanen duela eta zertarako nahi dituzu mendi-bide onak, autoz joateko agian? Ba, ez izan alferra eta ibili oinez! Gainera mendi erosoak eginez gero berehala beteko dizkigute men-

di-basoak autoz, bizikletaz, motoz eta abarrez. Nik arrazoi horiek guztiak ulertzen, onartzen eta errespetatzen ditut, baina ezin da ahaztu mundu honetako gizarte mugikortasun murrizteko gizakiak ere bizi garelako (makuluz, bastoiz, gurgil-aulkiz eta abarrez ibiltzen garenok). Alde batetik gure nahikaria ez da mendian ibiltzea edozein pertsona fisiko normal bezala eskiatzen, eskalatzeko, rappelatzen, eta abar, baina bai ahal dugun neurrian, eta pertsonak izateagatik, geure mailan mendiez eta izadiak gozatu nahi dugun modu kontrolatu batez bada ere. Hortaz, lekurik gabe gelditu baino lehen hona hemen nire errebindikazio batzuk jendeak pentsa ditzan eta mundu hau bidezkoagoa egin dezagun:



1) Oso ona izango litzateke Iparraldeko zein Hegoaldeko mendi-bideak bat egitea, tarte gutxi dagoelako Euskal Herri bat bera osatzen dugulako, eta Pirinioetako alde batekoak nola bestekoak Europako Batasun bakar batekoak omen garelako.

2) Ez dut eskatzen mendi-bide gehiago printzipioz, baina bai daudenak egoera hobean (galipotez edo porlanez), erabilgarriagoak direlako eta mantentimendua, ziur asko, errazagoa eta merkeagoa izanen delako.

3) Horrek ez du ekarri behar nahitanahiez igandezaleen masifikazioa. Alderantziz, jende gehiago ibil liteke bizikletaz. Gure gurditxoak ez dira kaltegarriak. Eta akenik, bideak gaizki egonda ere, lurrortakoak leku guztietara iristen dira. ■

Klasiko bitxi • arront klasiko

Joxemiel Bidador

Franzisko Antonio Larramendi: Antzerkiaren zirikatzaile

■ Anitz anitzak baditugu historia osoan barrena antzerkia bere berean eta erroetatik dauseztatzeko eginko saio elkorrak, eta hauen artean, garrantzitsuenetakoren bat. Gaspar Díaz lagundikoak ondu zuena. XVII. mende ondarreran Córdoba hirian sortutako josulagun huraxe zama handiko gizona omen genuen, eta beste askoren artean, Baeza, Córdoba, Sevilla edota Cádizeko ikastetxeen zuzentzeko arta egokitu zioten gariako orden buruek. Ez zuen antzerkiarena mintzagai bakarria izan gura, eta zortziko neurri erosoan eritasun larriak sendatzeko eskuliburu ballagarri eta egun hagitz ezezagun agi litekeena inprimarazi izan zuen 1756.ean. aurrekaldean honako izenburu harro zera-manana hots, *Método utilísimo que debe observarse en la curación de las enfermedades graves*. Nolanahi ere den, gaurkoan guri zuzenean dagokigun izkribua Cádizeko erret soldategiatatik elkiarazirik *Consulta teológica acerca de lo lícito de representar y ver representar comedias delo ia 200 orrialdeko liburu* mardula dugu baterako dudamuda izpirik gabe. Argitara eman aurretik, eta liburuarendako berme egoki bat kausitzeko asmoz, hirian zeuden elizgizon goren ia guzieren aita-pontetasuna hatzematen ahalegindu zen sutsuaren sutsu, begi onez eginko hamar zentsura eta iruzkinez, ez gutxiago ez gehiagorekila, ehundutako labela hain zuzen ere, testu osoari hasmenta ematen zion estrena izanik. Halaz eta guziz ere, garai hartan guzietan garrantzirik astuneneko oneritzia zatekeen Gaztelako Kontseiluaren baimena eskuratzeko aiantzi omen zitzaion Díaz jaunari, eta Kontseiluok, halako ahazte nabariak aztoratu ea zukuruzturik nonbait, inprimatu aleki oro jasotzeko agindua luzatu zuten Cordobako apez ertsiak burutu lan alfer osoa saritu nahian borobiltzeko. Harrez geroztik arras idazki bitxia jazo da, nahikoa zail eskuartetara helarazteko bederen. Alabainan bigarrenez 1815.ean karrikaratu zuten Córdoban, aldatutzea izan ere. Guziarekin lehendabiziko edizioaren oihartzuna uste baino ozenagoa gertatu zen, eta orduko aktore zein komiko guzieren batzuk Kontseiluaren ministraria zen Baltasar Henao zenari liburuia debekatzeko eskaria egin zion, baita lortu ere, esana gertu den legez. Iskanbila dena den etzen hartan geratu, eta aldeko nahiz kontrako hamaika hitz eta pitz oguzi eta izkiriari zuten elestari hantu berritsu batek baino gehiagok. Jakina idia ez dela bakarrik uztartzen.

Gaspar Díaz lagunkide andaluziarraren idazki kalapitatsuaz begiak bete zituzten epaile zuzen eta bihozbera hamar haietako bat gurean kasik batere aditua ez den Manuel Larramendiren lehengusua bera genuen. Ezagun da Hiztegi Hirukoitzaren egile maratzak amaren aldetiko abizena sortetxearen berbera alegia. Larramendi izenak ostera Hernanin zuen jaioterria, eta hernaniarrak ziren naski gure Garagorri izkutuaren askaziak. Gure Franzisko Antonio Larramendi Hernanin sortu zen, esan bezala, baina lasterrenean alde egin zuen Espalnia aldera, euskaldun hainbatek egin antzera, beti ere gizarte mailan posturik goitienaren xerka, eta horrela, Salamancako San Bartolome ikastetxean aritu ostean, Cádizeko magistrala eta bertako kapelau nagusia izatera heldu zen. Halere bere apez karreraren erdietsirik garaiak etzuen guriz asetu, eta zeraman bizitza markitsak ezina zuen goibelgarria zen herrimina ezabatzen. Frantzisko Antonik landu zituen harremanen artean, Isla aita isazle ospetsuarena bazegoen, eta gutunaren batetan, Leongo josulagun euskaltzaleak honela mintzo zitzaion amaltsu, ahal oro euskararen miresle: "Euskaraz hain mattemindurik nago, ezen gehiegikeri eta laudengurik gabe esan ohi dudala ene eri txipia emanen nukeela nahikoa balitz hizkuntza goxo hori osoz ikasteko. Lortuko banu, ez ezazu zalantzan jarri, enukeela aldatuko Cádizeko konfesionario erregearen berarenaren truke".

Gaurko ildo nagusira itzuliz, eta Díazren liburuari buruz Hernanikoak eman zituen aburuez, esan behar dugu aitzaki ezin hobea izan zuela antzerkiaren aurka ongi egituratuta zegoen eraso argi eta garbi bat tajutu ahal izateko. Erabili zituen arrazoi frankoen artean zera zioen, josulagunez gainera baita domingotarrek ere bere egin zutela antzerkiari aitziko borroka. *La tema de los jesuitas contra comedias*. Ez dakigu ordea hegoaldeko urrutiko lurralde haietan tema hitzarekin Larramendi txikiak esan nahi zuena bertakoek ezagutuko zutenentz.



Iruñeko Hiria xake torneo irekiko hirugarren jardunaldiko partida, 1995eko abenduaren 29an jokatu.

Francisco Hernandez (Costa Rica), 2.230 ELOkoa — Javier Otsoa (Euskal Herria), 2.455 ELOkoa.

1) d4, f5; 2) Ag5, c6; 3) e3, Db6; 4) b3.

Irteera ezohikoa. Piezak nola kokatzen dituzten ikustea interesgarria da.

4)...., d6; 5) Ac4, g6; 6) h4, h6; 7) Af4, Ag7; 8)

Df3, e5; 9) e5, e5; 10) Ah2, Da5 xa; 11) c3, b5; 12) b4, Db6; 13) Ab3, Ze7; 14) Ze2, Ab7; 15) Dg3, Zd7; 16) 0-0, c5; 17) Zd2, c4; 18) Ac2, 0-0.

Garapena amaitu da. Beltzen posizioak nahastu samarra dirudi. Agian erasokorragoa ere bai.

19) e4, f4; 20) Dh3, Zf6; 21) g4.

IKUS KOADROA. Txurien akatsa izan da eta beltzek ez dute aukera galduko.

21), Ac8.

Peoia erortzen zenez, partida utzi zuten txuriek. Azkarregi, baina zuloa egina zuten dagoeneko.





Artzain-txakurren Txapelketako irabazleak nazioarteko lehiaketan parte hartu ahal izango du.

JOXE LACALLE

Artzain Egunaren 29. edizioa

Arakil-Uharten egingo da igandean Euskal Herriko feriarik garrantzitsuena

Artzain Egunaren 29. edizioa egingo da igande honetan Arakil-Uharten. Urtero bezala, Aralar-Mendi elkarteak antolatutako egitarauaren ekitaldi nagusia izango da arratsaldeko bostetatik aurrera Geinberan egingo den Nafarroako artzain txakurren lehiaketa, baina egunean zehar artzaintza omendu eta produktuak bultzatzeko lehiaketa ugari izango dira.

Alberto Barandiaran / Iruñea

BADIRA Arakil-Uhartera etorri eta egun osoan atorra zuria kentzen ez duten artzainak; urte osoan egun honetan bakarrik egiten dute hori». Jose Mari Uztarroz Artzain Egunaren antolatzailleak badaki zer esan nahi duen horrek: 29 urte hauetan lortu dutela artzainaren omenezko eguna antolatzea, lanari puskatzen eta gozatzeko egun bat osatzea, lanbidea duintzea. Egundak Artzain Eguna da artzainentzat Artzain Eguna, eta gaztaren alde eginiko lanarengatik oraindik ikus daiteke, ardi buruak ekartzen dituzten artean, gazte franko.

Eta dena egin dute 800 biztanle eskas dituen herri honetan,



Iazko ferriako gazta-saltzaileen irudi bat.

JOXE LACALLE

uhartearrak biltzen dituen elkar-
teak bultzatuta. Duela 29 urte
sortu zen dena, baina orduan
bezala jarraitzen du egitarauak,
aldaketa handirik gabe, ez bada
gero eta jende gehiago hurbiltzen
dela Sakanako herrira, eta gau-
zak gero eta hobeto egin behar
direla, ospari eustearren.
«Gauza gehiago sar genezakeen,

baina egunak ez du gehiago
ematen». Uztarrozek hasieratik
ezagutu ditu Artzain Egunak eta
badaki aski ongi artzaintzari egin
dion onura, honen bilakaera eta
gaur egungo egoera. Erreparorik
gabe esaten baitu egun honek
laguntza handia eman diola ar-
tzaintzari.

Hasieran dena izan zen ar-

tzain-txakurren txapelketa, Na-
farroako beste kanporaketa ba-
tzuetan irabazi ondoren Uharten
biltzen ziren artzainen eta euren
txakurren topaketa. Duela ha-
mabost urte, alabaina, mugen
desagerpenaren aurrean sortu
zen psikosiak kezka handia era-
gin zuen artzainengan eta ekoiz-
leengan, kanpotik etorriko zenak

hemengo gazta baztertu eta hon-
doraziko zuen beldurrez, eta
gazta txapelketa ere egitea bu-
ruratu zitzaion, gazta hondora-
tuz gero, artzaintza halatsu. «Ho-
rregatik antolatu genuen gazta
txapelketa» azaldu du Uztarroz-
ek, «ezagutarazteko eta jakina-
razteko hau berezia dela eta ez
duela zer ikustekorik Frantziatik
edo Danimarkatik edo beste non-
baitetik datorren gaztarekin».

Egun, hamabost edizioen on-
dotik, Arakil-Uhartekoa da gazta
gehien saltzen den Euskal Her-
riko feria. Gutxi dira hara hur-
bildu eta gazta bat eskuan da-
ramatela joaten ez direnak. Ar-
tzainek ere harrizta ikusi dute
bilakaera: desagertzen ari zen
lanbidea ekonomikoki errenta-
garria da egun, urte gutxi ba-
tzuetara. «Artzainek beraiek
esaten digute lehen saltzen zu-
tenaren eta oraingoaren artean
dagoen jauzia ikaragarria dela,
eta hori kontuan harturik gazta
hau dela merkatuan dagoen ga-
restiena». Uztarrozaren esanetan,
tonatan neurtu beharko litzateke
Arakil-Uharten saltzen dena.

Ardi-esne gazten lehiaketa

goizean • Eguna, ohi bezala,
goizean hasiko da, ardi-esne
gazten lehiaketarekin. 50 ekoiz-
lek eman dute izena horretarako,
eta saltzaileak 25 bat izango dira.
Jakina den bezala, ardi-esne
gordinarekin egin eta 60 egun
aurretik ondutako gaztak lehia-
tuko dira. Lehen saria 35.000
pezetakoa da (1.400 libera in-
guru), eta sari banaketan amaie-
ran gazten enkanteari ekingo
zaio. Goizean ere Ardi Mozte VIII.
Lehiaketa egingo da eta, horrekin
 batera, Euskal Artzain-Txaku-
rren IV. Erakusketa, Arraza

«Egun, hamabost
edizioen ondotik,
Arakil-Uhartekoa da
gazta gehien saltzen den
Euskal Herriko feria»

hau berriki ezagutu dute Espai-
nian, eta nazioartean ere onartua
izateko bidean da.

Halaber, Nafarroako XII. Ardi
Laxaren Erakusketa eta esne-
produkzioaren lehiaketa ere
izango da goizean. Bildots tal-
deak, helduen taldeak eta ba-
karkako ahariak eta bildotsak
sarituko dira, buru gorrien eta
arpelten sailean. Hor parte har-
tu ahal izateko Aslana elkargoan
izena emanda egon beharko dute
abere guztiek, eta morfologia eta
produkzioa kontuan hartuko di-
ra.

Eguerdian partean izango da ar-
dikiarekin eginiko gisatuen le-
hiaketa, eta eguerdiko bazka-
riaren ondotik, 17.00etan, Ar-
tzain-Txakurren Txapelketa ha-
siko da Geinberan. Txakurrek
ohizko probak —obedientzia, ar-
taldea biltzea, jaistesira sar-
tzea— gainditu beharko dituzte
eta txapeldun eta txapeldunor-
dearentzako sariak 20.000 eta
15.000 pezetarenak izango dira,
hurrenez hurren. Biek izango
dute Oñatin egingo den Euskal
Herriko Txapelketan parte har-
tzeko eskubidea, eta txapelduna
ere nazioarteko lehiaketetan
izango da. X

◆ Tony Grady ◆ Margolaria

«Ikusleak nire lanaz gogoeta egitea nahi dut»

Tony Grady ingelesak bere azken margolanak paratu ditu Iruñeko Primi tabernan iraila bitartean. Hamar oliotan, Joseba Sarrionandia idazlearen Narrazioak liburuan oinarritutako lana aurkeztu du. Zuri-beltzean eta grisaren konbinazioak nahastuz ikuslea bere koadroak ikustean gogoeta egitera bultzatu nahi du.

Irene Arrizurieta / Iruñea

Tony Iruñeko Alde Zaharrean bizi bada ere, margotu Errotxapean alokatua duen estudio batean margotzen du. Ingalaterran orain 12 urte Arte Ederretan lizentziatu ondoren, hainbat lan egin izan ditu gustuko duena egin ahal izateko, margotzea alegia.

■ **Iruñeko Primi tabernan paratu dituzun pinturak zure azken lanak dira. Nola azalduko zenituzke?**

Oraingo lanok lehenago egin ditudanak baino abstraktuagoak dira. Joseba Sarrionandiaren Narrazioak liburutik ateratakoak dira. Koadroak hitz hutsak dira. Euskarazko hitzak erabili nahi nituen, IKAn euskara ikasten nuelako eta ez nuelako denborarik. Pentsatu nuen aprobetxatzea euskaraz idatzitako liburua margotzeko, horrela, era berean, euskaraz zertxobait irakurri ahal nuelako. Margolanek kapa asko dituzte, gutxi gora-behera liburua kopiatu dut. Kapa bati beste bat ezarri diot, lehenengo kapa letra bat da, bestea beste bat eta azkenean agian ez da ezer ikusten. Lan erdia egiten dut eta ikusleak beste erdia egin behar du.

■ **Zergatik aukeratu dituzu kolore ilunak?**


Kapa bakoitzak kolore bat dauka, koadroan idatzi egin dudanez beltzak eta zuriak ez dute kolore asko. Aurreko lanak olio handiarekin egindako lanak ziren, gauzak pilatu eta kendu. Orain, berriz, gehiago nahasten ditut. Horrela ohartzen naiz lanak borondate propioa duela, ideiak aldendu nahi ditut. Nik koadroaren kontrola galdu nahi dut eta, era berean, ikusle moduan egon. Daltonikoa naiz eta grisak bakarrik erabiltzen ditut, problemak ditut berdearekin, marroiarekin eta gorriarekin, eta arazoak ematen ez dizkidaten koloreak aukeratzen ditut. Horrek koloreetan gehiago pentsatzera bultzatu nau arazo hori dudalako. Hori dela eta, koloreetan baino gehiago formatan pentsatzen dut.

■ **Zergatik hartu duzu oinarritzat Sarrionandiaren liburua?**

Hitzak erabili nahi nituen nire lanean. Lagun batek liburu batzuk eman zizkidan euskara ikasteko, gramatika eta testu liburuak. Horien artean Sarrionandiarena zegoen eta horixe aukeratu nuen.

■ **Zer hartzen duzu abiapuntutzat zure margolanak egiteko? Ildoren bati jarraituko diozu, ezta?**

Zaila da agertzen. Normalean ideia bat hartzen dut eta horrekin lan egiten dut. Gero, ideia horren lana bukatzen denean, beste bat badut buruan. Zaila da hurrengo koadroan zein kolore nahastu nahi ditudan eta zer erabili nahi dudan erakustea. Batzuetan funtzionatzen du, beste batzuetan ez. Ideiak kentzen saiatzen naiz eta azkenean zerbait ateratzen da. Koadroek beren bizia dute. Ni, zerbait aurkitu beharrean, kentzen noa; erraza da es-



Tony Gradyk astelehenean ireki zuen erakusketa berria Primi tabernan.

JOXELACALLE

tilo batean margotzea edo ondoan dudan paisaia kopiatzea, baina ni ez dauden gauzak aurkitzen saiatzen naiz. Nik lanaren erdia egiten dut eta beste erdia ikusleak nire lanak begiratzen. Ez dut deus handirik esateko, ikusleak gogoeta egin dezan nahi dut.

■ **Egin dituzun erakusketetarik zein nabarmenduko zenituzke?**

Lan egiten dut margotzeko, ez dut deus irabazten. Egin dudan erakusketarik handiena orain bi urte Gotorlekuan egin nuen. Hogeita hamar koadro paratu nituen, eta heldu den hilabetean beste erakusketa bat daukat Gra-

nadan udaletxeko kapera batean; 40 koadro bidaliko ditut. Orain Bartzelonako galeria batean bost koadro ditut; lehen aldia da galeria batean erakusten dudana.

■ **Nola dago merkatua? Pentsatu duzu pinturatik soilik bizitzetza?**

Nik uste dut ezinezkoa dela. Hala ere, Espainiako Estatuan lehiaketa asko daude noizbehinka dirua jasotzeko. Baina ez dago merkaturik. Bestalde, galeria askotan ikusten dudanak eta nik egiten dudanak ez dute zerikusirik. Oso zaila da hau bakarrik egitea. Oso mundu iheskorra da. Galerietako irekitze ekitaldietara

s o s l a i a

Orain dela zazpi urte etorri zen Ingalaterrako Newcastle jaio-territik Iruñera Tony Grady. Nafarroara iritsi zenean gaztelania oso gutxi zekien, eta euskaraz hitzik ere ez. Denbora pasatu ahala gaztelaniaz ezezik euskaraz ere trebatu da. Euskara ikasten Hizkuntz Eskolan hasi zen, gero IKAk duen Arturo Kanpion euskaltegian egin ditu bost urrats eta aurtun seigarrenarekin hasteko asma dauka.

Bizitzeko dirua akademietan ematen dituen ingelesezko klaseetatik ateratzen du pinturak ez diolako horretarako ematen. Klaseek uzten dioten denbora libre eta asteburuak margotzen igarotzen ditu Gradyk. Iruñetik ateratzeko beta handirik ez badu ere, noizbehinka Zaraitzu edo Erronkarria egiten du bisitatxoren bat.

Aurtun Nafarroako Gobernuak eman dion sorkuntzarako laguntza aprobetxatuz —400.000 pezeta (16.000 libera)—, goizean bakarrik erakutsi nahi luke Ingelesa, eta arratsaldeak margotzeko eta proiektu berriak pentsatzeko izan nahi lituzke.

joaten den jendea ez dakit nondik ateratzen den, normalean artistak ez gara horrelakoak eta gurean ez da horrelako jendea ikusten. Artistaren mundua eta erolearena eta galeristarena oso desberdinak dira. Galeriak dira usteko mundu hau eraiki dutenak, irudi sofistikatu bat ematen dutenak. Beti egin izan dute horrela, nahi dute norbait galeria batean sartu bezain azkar han dagoena artea dela konturatzea, baina zuk tabernan zure lanak jartzen badituzu koadro soilak dira. Galeria batean egoteak ez du esan nahi koadro hori beste bat baino hobeago edo txarragoa denik.

P A N E LUCRANDO

LIRIKAZ
HONATAGO
•25•

GAUR:
**BELAR
HOSTOA**

Walt Whitman

Uste dut belar hosto bat ez dela izarren lan-egun bat baino gutxiago eta modu berean txinaurria perfektua dela, eta hare pikor bat, eta erregetxoaren arraultza, eta zuhaitzetako apoa neurri handiko maixu-lan bat dela.

KROA!

ZALDI EROA